...Errekalde berritzen

# Errekalde Gizarte Etxea

## + zioak, betebeh., kokap. 01

// eraikin industrial hiritarraren moldaketa

gral 2015 // josu aguilar medina // tut_ula iruretagoiena




### + zioak, betebeharrak eta kokapena (p1t1)

+ Errekalde Bilbo hegoaldean kokatzen den barrutia da. Identitate handiko auzoa da Errekalde, langileen auzo historikoa izateaz gain, hiriko komunikazio azpiegiturek, trenbidea eta autobidea, auzoa gainontzeko hirigunetik banatu egin dute eta horregatik alboraturik gelditu da autonomia propioa eskuratuz.

+ Auzoa bailara estu batean kokaturik dago, eta horregatik bi zonalde ditu, behealdean bata eta mendian gora bestea.

+ Errekalde egun, aukera handiko eraldaketa unean aurkitzen da. Trenbidearen lurperatze lanak abian dira eta autobidearen eraispenak oraindik bide luzea badu ere, agintarien esku orrian dagoela ematen du. Banaketa funtzioa izan duten azpiegituren desagerpenak Errekalderen berantolaketa planteamendu baten ateak irekitzen ditu.

+ Abagune honetan Errekalderen papera berpentsatu beharra dago, auzo mailako eraldaketaz gain Bilbo mailako eragina izan dezakeen estrategiak martxan jarri baitaitezke. Auzoa errotik alda dezakeen espazioa berreskuratuko delako alde batetik eta Bilboko Hiria Antolatzeko Plan Orokorra (HAPO) berrikuste prozesuan delako.

